

## **SESION PLENARIA**

**Legislatura:** XI  
**Acta n.º:** 1  
**Lugar:** Casa de Juntas de Gernika  
**Fecha:** 03 de febrero de 2021  
**Comienzo:** 09:00  
**Finalización:** 11:45

## **OSOKO BATZARRA**

**Agintaldia:** XI.a  
**Batzar-Agiria:** 1.a  
**Lekua:** Gernikako Batzar Etxea  
**Eguna:** 2021eko otsailaren 3a  
**Hasierea:** 09:00  
**Amaierea:** 11:45

## **BERTARATUAK / ASISTENTES**

### **1.- Lehendakaritza eta Mahaia / Presidencia y Mesa**

**Lehendakaria / Presidenta:**

Otadui Biteri, Ana (EAb/NV)

**Lehenengo Lehendakariordea / Vicepresidenta Primera:**

Gil Llanos, Begoña (SV/ES)

**Bigarren Lehendakariordea / Vicepresidente Segundo:**

Isuskiza Arana, Zigor (EHB)

**Lehenengo Idazkaria / Secretario Primero:**

Mediavilla Amarika, Koldo (EAb/NV)

**Bigarren Idazkaria / Secretario Segundo:**

Lobato Pascual, Emilio (EB)

### **2.- Talde Berezia-PPB / Grupo Mixto-PPB**

Andrade Aurrecoechea, Eduardo

Fernández Angulo, Amaya

### **3.- Elkarrekin Bizkaia / Elkarrekin Bizkaia**

Benito Ziluaga, Xabier

Cabornero Alor, Eva María

De Madariaga Martin, Eneritz

Escalante Mesón, Israel

Fernández Medrano, Héctor

### **4.- Euskal Sozialistak / Socialistas Vascos**

Álvarez Castrejón, José Alberto

Campo Prieto, Ana Berta  
Jerónimo Moreno, Ignacio  
Muñoz Llamas, María Ángeles  
Ortiz Zaballa, Jesús María  
Otermin Eraso, Juan  
Rebollo Frías, Amaia

**5.- EH Bildu / EH Bildu**

Arriola Alzola, Iratxe  
Ilardia Olangua, Beatriz  
Méndez Urigoitia, Raul  
Rahona Garay, Iker  
Urkaregi Etxepare, Arantza  
Vega Isasi, Asier

**6.- Euzko Abertzaleak / Nacionalistas Vascos**

Arana Requena, Oscar  
Argatxa Begoña, Zuriñe  
Bagan Urtiaga, Mikel  
Beitia Zurinaga, Gorka  
Bengoetxea Otaolea, Ibone  
Coria Yanguas, Elena  
De Luis Zelaia, Gaizka  
Díaz Insausti, Garazi  
Edesa Gómez, Irene  
Furundarena Olabarriaga, Ana Esther  
Gómez Devesa, Celia  
Ibernia Belamendia, Amaia  
Inoriza Bustamante, Idoia  
Iturrioz Rementeria, Esther  
Lamborena Barreras, José Antonio  
Landa Bilbao, Naia  
Lekerikabeaskoa Arrillaga, Jesús  
Lerma Mentxaka, Unai  
López de la Fuente Asier  
Pieló Muguruza, Ainhoa  
Rementeria Maiz, Unai  
Urquieta Zuzeta, Jane Eyre

## 7.- Foru Aldundia / Diputación Foral

D. Unai Rementeria Maiz jn. (Ahaldun Nagusia/Diputado General)

Dña. Ibone Bengoetxea Otaolea and. (Batzarkidea/Apoderada)

Dña. Teresa Laespada Martínez and.

Dña. Lorea Bilbao Ibarra and.

D. Miguel Ángel Gómez Viar jn.

Dña. Elena Unzueta Torre and.

D. Sergio Murillo Corzo jn.

Dña. Ainara Basurko Urkiri and.

Reunidos los miembros de la Cámara en la fecha, lugar y hora arriba mencionados y habiendo quórum suficiente, la Sra. Presidenta abre la Sesión, pasando a tratar seguidamente los puntos incluidos en el orden del día.

Al inicio de la sesión plenaria, la Sra. Presidenta anuncia las delegaciones de voto solicitadas por los grupos junteros.

Por parte del **GRUPO EH BILDU**, delega su voto en la Sra. **Iardía Olangua**, el Sr. López Odriozola.

Por parte del **GRUPO NACIONALISTAS VASCOS**, delega el voto en el Sr. **Lekerikabeaskoa Arrillaga** el Sr. Pradales Gil.

Continúa la sesión plenaria con la lectura, por parte de la Sra. Presidenta, de una declaración institucional sobre la situación de la empresa ITP AERO CASTING, filial de ITP AERO.

### Fuera del Orden del día

1.- Examen, debate y votación, en su caso, del/ de los escritos sobre:

Iniciativa Originaria: Declaración Institucional ([R.E.11/E/2021/0000872](#))

Autor: Grupos Junteros

Batzarkideak gorago aitatutako egunean, lekuan eta orduan bildu dira eta, quoruma nahikoa izanik, Lehendakari andreak hasiera emon deutso batzarrari. Ondoren, gai-zerrendan ezarritako aztergaiak jorratu dira.

Osoko Batzarra hasitakoan, batzarkide-taldeek eskatutako boto-eskuordetzen barri emon dau Lehendakari andreak.

**EH BILDU TALDEAN**, López Odriozola jaunak **Iardía Olangua** andreari eskuordetu deutso bere botoa.

**EUZKO ABERTZALEAK TALDEAN**, Pradales Gil jaunak **Lekerikabeaskoa Arrillaga** jaunari eskuordetu deutso bere botoa.

Osoko Batzarrari jarraipena emoteko, Lehendakari andreak ITP AERO enpresearen filiala dan ITP AERO CASTING enpresearen egoereari buruzko Erakunde Adierazpena irakurri dau.

### Gai-zerrendatik kanpo

1.- Honako idatzi hau aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Erakunde Adierazpena ([11/E/2021/0000872SE](#))

Egilea: Batzarkide-taldeak

**Asunto:** Declaración Institucional sobre la situación de la empresa ITP AERO CASTING, filial de ITP AERO

**Documento Principal:** [\(R.E.11/E/2021/0000872\)](#)

**Expediente:** [11/D/06/0002052](#)

### Incidencias

#### DECLARACIÓN INSTITUCIONAL SOBRE LA SITUACIÓN DE LA EMPRESA ITP AERO CASTING, FILIAL DE ITP AERO

*Castigada en el pasado por reconversiones y cierres empresariales, la Margen Izquierda ha acometido en las últimas décadas un importante proceso de transformación socioeconómica, al que ha contribuido la instalación en la comarca de nuevas empresas en sectores de alto componente tecnológico.*

*Desde finales de la década de los ochenta, el sector aeronáutico ha emergido con fuerza para crear riqueza y puestos de trabajo en la comarca de la Margen Izquierda y en Bizkaia en su conjunto. El grupo ITP AERO ha tenido un papel destacado en este proceso con la creación de las plantas de ITP AERO CASTING en Barakaldo y Sestao.*

*En este año 2020, el sector aeronáutico mundial se ha visto especialmente afectado por la situación de pandemia actual que sufren todos los sectores económicos. Ante esta difícil situación no podemos caer en el desánimo, y junto con los enormes esfuerzos que se están realizando en el ámbito sanitario y científico a nivel mundial, se deben acometer actuaciones públicas de apoyo a los sectores económicos más afectados con el fin de evitar que las empresas deban adoptar medidas drásticas que impidan consolidar y desarrollar proyectos empresariales con buenas expectativas de futuro a medio y largo plazo.*

*El sector aeronáutico vasco ha contado siempre con el apoyo público para el desarrollo de sus proyectos de innovación y de I+D y para la formación de una plantilla altamente especialización y cualificada.*

*Somos conscientes de que el reto de mantener en*

**Gaia:** Erakunde Adierazpena, ITP AERO enpresearen filiala dan ITP AERO CASTING enpresearen egoerea dala-eta

**Dokumentu nagusia:** [\(11/E/2021/0000872SE\)](#)

**Espedientea:** [11/D/06/0002052](#)

### Gorabeherak

#### ERAKUNDE-ADIERAZPENA, ITP AERO ENPRESEAREN FILIALA DAN ITP AERO CASTING ENPRESEAREN EGOEREA DALA-ETA

*Iraganean, birmoldaketek eta enpresa-itxierak gogor astindu eben Ezkerraldea, eta azkenengo hamarkadetan eraldaketa sozioekonomikoa egiteko prozesu garrantzitsuari ekin jako bertan. Horretan lagungarria izan da teknologia-oinarri handia daben sektoreetako enpresa barriak kokatzea eskualdean.*

*Larogeiko hamarkadearen amaieratik hona, aeronautikaren sektorea sendotasunez garatu da eta aberastasuna eta lanpostuak sortu ditu Ezkerraldean eta Bizkai osoan. ITP AERO taldeak zeregin garrantzitsua euki dau prozesu horretan, eta Barakaldon eta Sestaoen ITP AERO CASTINGen fabrikak sortu ditu.*

*Gaur egun ekonomia-sektore guztiek jasaten daben pandemia-egoereak kalte berezia egin deutso 2020. urtean mundu osoko aeronautika-sektoreari. Egoera gatx honen aurrean, ezin gara etsipenean jausi, eta, munduan osasun- eta zientzia-arloak egiten dabilzan ahalegin handiakaz batera, arlo publikotik be bultzatu behar dira ekonomia-sektorerik kaltetuenei laguntzeko jarduketak. Osterantzean, enpresek neurri zorrotzak hartu beharko ditue eta ezin izango dira garatu eta sendotu hainbat enpresa-proiektu, epe ertainera zein luzera etorkizun-aurreikuspen onak euki arren.*

*Euskal aeronautikaren sektoreari laguntza publikoa emon jako beti, barrikuntza eta I+G proiektuak garatzeko eta espezializazio eta kualifikazio handiko plantillea eratzeko.*

*Etorkizunean aeronautikako sektore lehiakorra*

*Bizkaia un sector aeronáutico competitivo en el futuro implica una necesaria adaptación a los cambios que se están produciendo, pero se deben realizar todos los esfuerzos posibles para el mantenimiento de los puestos de trabajo actuales ya que su conocimiento ha contribuido a que las empresas de Bizkaia de este sector ocupen una posición relevante a nivel internacional.*

*Es por ello que los partidos aquí firmantes de las Juntas Generales de Bizkaia, solicitamos a la Diputación Foral de Bizkaia:*

*1.- Que colabore para que se mantenga vías de diálogo, con el objetivo principal de mantenimiento de empleo, entre el Grupo ITP AERO y las y los trabajadores de la empresa ITP AERO CASTING que permitan alcanzar una solución acordada y lo más adecuada posible a la situación actual.*

*2.- Que ponga en marcha programas de actuación que permitan mantener y aprovechar el conocimiento específico de las y los trabajadores de estas empresas, así como su adaptación a los nuevos retos que afronta el sector.*

El Sr. Secretario Primero procede a dar lectura del primer punto del orden del día que dice así:

1.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Proyecto de Norma Foral de Presupuestos ([R.E.11/E/2020/0002793](#))

**Autor:** Diputación Foral de Bizkaia

**Asunto:** Proyecto de Norma Foral de Presupuestos del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2021.

**Documento Principal:**

**Enmiendas de totalidad estricta:**

[\(R.E.11/E/2021/0000200\)](#)

[\(R.E.11/E/2021/0000496\)](#)

**Enmiendas asimiladas a las de totalidad:**

[\(R.E.11/E/2021/0000201\)](#)

[\(R.E.11/E/2021/0000497\)](#)

[\(R.E.11/E/2021/0000498\)](#)

[\(R.E.11/E/2021/0000513\)](#)

[\(R.E.11/E/2021/0000624\)](#)

[\(R.E.11/E/2021/0000809\)](#)

*mantendu gura badogu Bizkaian, ondo dakigu, erronka horri aurre egiteko, sektorea aldaketa barrietara egokitu beharko dala, baina gaur egungo lanpostuei eusteko ahal dan guztia egin behar da, jakintza horri esker lortu dauelako sektoreak nazinoartean daukan maila aitagarria.*

*Hori dala-eta, adierazpen hau sinatzen dogun Bizkaiko Batzar Nagusietako alderdiok honako hau eskatzen deusagu Bizkaiko Foru Aldundiari:*

*1.- Enpleguari eusteko helburu nagusiagaz, lagundu daiala ITP AERO Taldearen eta ITP AERO CASTING enpresako langileen arteko alkarriketa-bideak edegita mantentzen, oraingo egoerea kontuan harturik egokiena dan konponbide adostua lortzeko.*

*2.- Jarduketa-programa batzuk ipini daizala martxan enpresa horretako langileen jakintza espezifiko mantendu eta aprobetxetako eta sektoreak dituan erronka barrietara egokitzeko.*

Lehenengo Idazkari jaunak gai-zerrendako lehenengo aztergaia irakurri dau. Honako hau dino:

1.- Honako idatzi hau aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Aurrekontuen Foru Arauaren Proiektua ([11/E/2020/0002793SE](#))

**Egilea:** Bizkaiko Foru Aldundia

**Gaia:** Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2021. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauaren proiektua

**Dokumentu nagusia:**

**Osotasunezko zuzenketak:**

[\(11/E/2021/0000200SE\)](#)

[\(11/E/2021/0000496SE\)](#)

**Osotasunezko zuzenketa-eskeen baliokideak:**

[\(11/E/2021/0000201SE\)](#)

[\(11/E/2021/0000497SE\)](#)

[\(11/E/2021/0000498SE\)](#)

[\(11/E/2021/0000513SE\)](#)

[\(11/E/2021/0000624SE\)](#)

[\(11/E/2021/0000809SE\)](#)

**Boletines:** [Admisión a trámite](#) (4A), [Enmiendas: Notas tramitación enmiendas Presupuestos](#) (4B) [Enmiendas a la totalidad: Admisión a trámite](#) (4C), [Enmiendas particulares. Admisión a trámite](#) (4D)

**Expediente:** [11/A/09/0001857](#)

### **INCIDENCIAS**

La Sra. Presidenta cede la palabra la Diputada Foral de Sostenibilidad y Medio Natural, la Sra. Unzueta Torre, para resumir el contenido del proyecto de presupuestos de la Diputación Foral de Bizkaia y enumerar los objetivos que la Diputación Foral pretende llevar a cabo mediante las partidas asignadas a cada departamento.

La Sra. Presidenta cede la palabra a los apoderados de los grupos autores de las enmiendas de totalidad al Proyecto de Norma Foral de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2021.

Abre el turno de grupos que han presentado enmiendas a la totalidad la apoderada del grupo Elkarrekin Bizkaia Sra. De Madariaga Martín, para explicar las razones por las cuales su grupo presenta enmiendas de totalidad al Proyecto de Norma Foral de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2021 ante esta Cámara.

La Sra. Presidenta cede la palabra a la apoderada Urkaregi Etxepare, del grupo EH Bildu, a fin de presentar las razones por las que su grupo presenta enmiendas a la totalidad del Proyecto de Norma Foral de Presupuestos correspondientes al ejercicio 2021.

La Sra. Presidenta abre turno de palabra para los grupos que no han presentado enmiendas de totalidad al Proyecto de Norma Foral de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el ejercicio 2021.

Comienza este turno de palabra la apoderada del Grupo Mixto-PP Bizkaia la Sra. Fernández Angulo. Seguidamente toma parte el apoderado del grupo Socialistas Vascos, el Sr. Otermin Eraso. Por último, la Sra. Presidenta cede la palabra al apoderado del

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea](#) (4A), [Zuzenketa-eskeak: Aurrekontuetako zuzenketa-eskeen bideraketari buruzko oharra](#) (4B) [Osotasunezko zuzenketa-eskeak: Izapidetzeko onartzea](#) (4C), [Zatizko zuzenketa-eskeak. Izapidetzeko onartzea](#) (4D)  
**Espediente:** [\(11/A/09/0001857\)](#)

### **GORABEHERAK**

Lehendakari andreak berba egiteko txandea emon deutso Unzueta Torre Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatuari, labur azaldu daian zein dan Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrekontu-proiektuaren edukia, eta banan-banan aitatu daizan Bizkaiko Foru Aldundiak sail bakotxari esleitutako partidakaz lortu gura dituan helburuak.

Lehendakari andreak berba egiteko txandea emon deutse Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2021 urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauaren proiektuari osotasunezko zuzenketa-eskeak aurkeztu dituen taldeetako batzarkideei.

Osotasunezko zuzenketa-eskeak aurkeztu dituen taldeen txandea De Madariaga Martín Elkarrekin Bizkaia taldeko batzarkideak edegi dau, eta azaldu dau zergaitik aurkeztu deutzazan bere taldeak osotasunezko zuzenketa-eskeak Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2021erako Aurrekontu Orokorren Foru Arauaren proiektuari ganbera honetan.

Lehendakari andreak berba egiteko txandea emon deutso EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkideari, eta berak azaldu dau zergaitik aurkeztu deutzazan bere taldeak osotasunezko zuzenketa-eskeak 2021erako Aurrekontu Orokorren Foru Arauaren proiektuari.

Lehendakari andreak berba egiteko txandea emon deutse Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2021 urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauaren proiektuari osotasunezko zuzenketa-eskerik aurkeztu ez deutzien taldeei.

Berba egiteko txanda horri Talde Berezia-PP Bizkaia taldeko Fernández Angulo andreak ekin deutso. Ondoren, Euskal Sozialistak taldeko Otermin Eraso batzarkideak egin dau berba. Azkenik, Lehendakari andreak Euzko Abertzaleak taldeko Lekerikabeaskoa

grupo Nacionalistas Vascos Sr. Lekerikabeaskoa Arrillaga, quien utiliza su primer turno de intervención para exponer los motivos por los cuales su grupo va a votar en contra de las enmiendas de totalidad al Proyecto de Norma Foral de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2021 presentadas por el grupo Elkarrekin Bizkaia y el grupo EH Bildu.

La Sra. Presidenta concede un segundo turno de respuesta.

Abre este segundo turno la apoderada del grupo Elkarrekin Bizkaia, Sra. De Madariaga Martín.

A continuación utiliza el segundo turno de intervención la apoderada del grupo EH Bildu, la Sra. Urkaregi Etxepare.

Seguidamente toma la palabra la apoderada del Grupo Mixto-PP Bizkaia, Sra. Fernández Angulo.

Toma a continuación la palabra el apoderado del grupo Socialistas Vascos Sr. Otermin Eraso.

Finaliza el segundo turno de intervenciones el apoderado del grupo Nacionalistas Vascos Sr. Lekerikabeaskoa Arrillaga.

Llegados a este punto, se somete a votación la devolución a Diputación Foral de Bizkaia del Proyecto de Norma Foral de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2021. Se procede a la votación y el resultado el siguiente:

### **VOTACIÓN**

Votos Emitidos: 49

- Votos a favor: 14 (EHB, EB)
- Votos en contra: 35 (EAb/NV, GM/TB-PPB, SV/ES)
- Abstenciones: 0

### **ACUERDOS**

No devolver el Proyecto de Norma Foral de Presupuestos del Territorio Histórico de Bizkaia para

Arrillaga batzarkideari emon deutso txandea, eta berak berba egiteko bere lehenengo txandea erabili dau azaltzeko zergaitik emongo deutesen bere taldeak ezezko botoa Elkarrekin Bizkaia taldeak eta EH Bildu taldeak Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2021erako Aurrekontu Orokorren Foru Arauaren proiektuari aurkeztutako zuzenketa-eskeei.

Lehendakari andreak erantzuteko bigarren txandea edegi dau.

Bigarren txandea edegita, De Madariaga Martín Elkarrekin Bizkaia taldeko batzarkideak egin dau berba.

Jarraian, EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkideak erabili dau berba egiteko bigarren txandea.

Jarraian, Talde Berezia-PP Bizkaia taldeko Fernández Angulo batzarkideak egin dau berba.

Ondoren, Euskal Sozialistak taldeko Otermin Eraso batzarkide jaunak hartu dau berbea.

Euzko Abertzaleak taldeko Lekerikabeaskoa Arrillaga batzarkide jaunak amaitu dau berba egiteko bigarren txandea.

Une horretan, Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2021. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauaren proiektua Bizkaiko Foru Aldundiari itzuliko ete jakon bozkatzeko agindu da. Bozketea egin da eta honako hau izan da emaitza:

### **BOZKETEA:**

Botoak guztira: 49

- Aldekoak: 14 (EHB, EB)
- Aurkakoak: 35 (EAb/NV, GM/TB-PPB, SV/ES)
- Abstentzinoak: 0

### **ERABAGIAK**

Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2021. urteko Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren proiektua ez

el año 2021.

Seguidamente la Sra. Presidenta somete a votación las enmiendas asimiladas a las de totalidad presentadas por el grupo Elkarrekin Bizkaia y por el grupo EH Bildu.

**Enmienda 3981(Reg. 201) del grupo EH Bildu)**

Votos Emitidos: 49

- Votos a favor: 14 (EHB, EB)
- Votos en contra: 35 (EAb/NV, GM/TB-PPB, SV/ES)
- Abstenciones: 0

**Enmienda 3794 (Reg. 497) del grupo Elkarrekin Bizkaia**

Votos Emitidos: 49

- Votos a favor: 6 (EB)
- Votos en contra: 35 (EAb/NV, GM/TB-PPB, SV/ES)
- Abstenciones: 8 (EHB)

**Enmienda 3795 (Reg. 498) del grupo Elkarrekin Bizkaia**

Votos Emitidos: 49

- Votos a favor: 6 (EB)
- Votos en contra: 35 (EAb/NV, GM/TB-PPB, SV/ES)
- Abstenciones: 8 (EHB)

**Enmienda 3810 (Reg. 513) del grupo Elkarrekin Bizkaia**

Votos Emitidos: 49

- Votos a favor: 6 (EB)
- Votos en contra: 35 (EAb/NV, GM/TB-PPB,

itzultzea.

Ondoren, Lehendakari andreak agindu dau Elkarrekin Bizkaia taldeak eta EH Bildu taldeak aurkeztutako osotasunezko zuzenketa-eskeen baliokideak bozkatzeko:

**EH Bildu taldearen 3981. zuzenketea (201. erregistroa)**

Botoak guztira: 49

- Aldekoak: 14 (EHB, EB)
- Aurkakoak: 35 (EAb/NV, GM/TB-PPB, SV/ES)
- Abstentzinoak: 0

**Elkarrekin Bizkaia taldearen 3794. zuzenketea (497. erregistroa)**

Botoak guztira: 49

- Aldekoak: 6 (EB)
- Aurkakoak: 35 (EAb/NV, GM/TB-PPB, SV/ES)
- Abstentzinoak: 8 (EHB)

**Elkarrekin Bizkaia taldearen 3795. zuzenketea (498. erregistroa)**

Botoak guztira: 49

- Aldekoak: 6 (EB)
- Aurkakoak: 35 (EAb/NV, GM/TB-PPB, SV/ES)
- Abstentzinoak: 8 (EHB)

**Elkarrekin Bizkaia taldearen 3810. zuzenketea (513. erregistroa)**

Botoak guztira: 49

- Aldekoak: 6 (EB)



SV/ES)

- Abstenciones: 8 (EHB)

**Enmienda 3928 (Reg. 624) del grupo Elkarrekin Bizkaia**

Votos Emitidos: 49

- Votos a favor: 6 (EB)
- Votos en contra: 35 (EAb/NV, GM/TB-PPB, SV/ES)
- Abstenciones: 8 (EHB)

**Enmienda 3935 (Reg. 809) del grupo Elkarrekin Bizkaia**

Votos Emitidos: 49

- Votos a favor: 14 (EHB, EB)
- Votos en contra: 35 (EAb/NV, GM/TB-PPB, SV/ES)
- Abstenciones: 0

No habiendo más asuntos que tratar y siendo las 11:45 horas, la Sra. Presidenta levanta la Sesión

De todo lo actuado y para que quede constancia, se redacta la presente Acta, que yo Secretario autorizo, quedando recogidas las intervenciones íntegras en el Diario de Sesiones correspondiente a esta Sesión Plenaria, según lo dispuesto en los artículos 62 y 93 del Reglamento de las Juntas Generales de Bizkaia.

**O. E.: LEHENDAKARIAK**

**Vº Bº: LA PRESIDENTA**

**Ana Otadui Biteri**

- Aurkakoak: 35 (EAb/NV, GM/TB-PPB, SV/ES)

- Abstentzinoak: 8 (EHB)

**Elkarrekin Bizkaia taldearen 3928. zuzenketea (624. erregistroa)**

Botoak guztira: 49

- Aldekoak: 6 (EB)
- Aurkakoak: 35 (EAb/NV, GM/TB-PPB, SV/ES)
- Abstentzinoak: 8 (EHB)

**Elkarrekin Bizkaia taldearen 3935. zuzenketea (809. erregistroa)**

Botoak guztira: 49

- Aldekoak: 14 (EHB, EB)
- Aurkakoak: 35 (EAb/NV, GM/TB-PPB, SV/ES)
- Abstentzinoak: 0

Beste aztergairik egon ez danez, Lehendakari andreak amaiera emon deutso batzarrari 11:45ean.

Batzarreko legelari aholkulariak idatzi eta Idazkariak baimendu egiten dau Batzarreko gorabehera eta erabagiak jasoten dituan batzar-agiri hau. Batzarrean esandakoak jagokon batzar-egunkarian jasoten dira oso-osorik, hori guztiori Bizkaiko Batzar Nagusien Araudiaren 62. eta 93. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

**BAIMENA: IDAZKARIA**

**AUTORIZADO: EL SECRETARIO**

**Koldo Mediavilla**

